ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, ILLUNBE-MIRAMON TARTEAN, I ADARREKO JARIOA KONPONTZEKO OBRAK KONTRATATZEKO LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKI BIDEZ, ARAUTUKO DUENA

Donostia, 2024ko irailak 12

ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, ILLUNBE-MIRAMON TARTEAN, I ADARREKO JARIOA KONPONTZEKO OBRAK KONTRATATZEKO LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKI BIDEZ, ARAUTUKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak SAk Administrazio Klausula Berezien Agiri honetako **Karatularen 1. puntuan** (aurrerantzean, Karatula) adierazitako obrak gauzatuko dituen kontratista bat aukeratzea.

Obra horiek Agiri honen, Gauzatze Proiektuaren eta kontratistaren proposamenaren arabera gauzatuko dira.

Loteetan banatuz kontratuaren zatiak modu independentean egitea aurreikusten den kasurako, Karatularen 1. puntuan honako hau adieraziko da: kontratua banatuta dagoen lote zehatzak; hala badagokio, lizitatzaile bakar batek zenbat lotetarako aurkeztu dezakeen eskaintza; hala badagokio, lizitatzaile bakoitzari esleitu ahal zaizkion lote kopurua; kasu bakoitzean zehazten diren alderdiak.

Obraren Zuzendaritza Fakultatiboa **Karatularen 1. puntuan** adierazten denari egokituko zaio.

Kontratuaren CPV kodea **Karatularen 1. puntuan** adierazten da.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratugilea Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak SA (aurrerantzean, AGASA edo erakunde kontratugilea) da.

Kontratazio Organoa **Karatularen 2. puntuan** adierazten da eta, hala badagokio, eta ezar daitekeen zuzenbide pribatuko arauei jarraituz, egokitzat jotzen dituen pertsonak izenda ditzake berariaz, kontratuarekin lotutako jarduera jakin batzuk gauzatzeko.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko zaio lizitatzaileari, horrek kalitate/prezio erlazio hoberena duen eskaintza aurkezten badu, agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera (aurrerantzean, eskaintza hoberena).

4. ALDAERAK

Lizitatzaileek aldaerak aurkezteko aukera jakitera ematen da, hala dagokionean, **Karatularen 3. puntuan**.

Aldaerak onartzen badira, **Karatularen 3. puntuan** adierazten dira haien gutxieneko eskakizunak, modalitateak eta ezaugarriak, baita haiek kontratuaren xedearekin duten lotespena ere.

5. KONTRATUZKO DOKUMENTAZIOA

Esleitu ondoren formalizatzen den kontratuaz gain, kontratu-izaera edukiko dute dokumentu hauek:

- Administrazio Klausula Berezien Agiri honek eta bere Karatulak.
- Gauzatze Proiektuak.
- Esleipendunak aurkezten duen eskaintzak.
- **Karatularen 4. puntuan** adierazten den beste edozein dokumentuk.

Esleipendunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko egintzan, guztiak onartzen dituenaren froga gisa.

6. KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA

Kontratuaren xede diren obrak gauzatzeko guztizko gehieneko epea **Karatularen 5. puntuan** adierazten da.

Gehieneko epe hori murriztu daitekeen kasuan, **Karatularen 5. eta 12. puntuetan** adieraziko da.

Hala badagokio, Kontratuaren xede diren obrak gauzatzeko gehieneko epe partzialak **Karatularen 5. puntuan** adieraziko dira.

Gauzatzeko gehieneko epe partzial horiek murriztu badaitezke, **Karatularen 5. eta 12. puntuetan** adieraziko da.

Eskainitako gauzatzeko guztizko epea eta, hala badagokio, gauzatzeko epe partzialak betetzea funtsezko kontratuzko betebeharra izango da SPKLaren 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Hortaz, betebehar hori ez betetzeak berekin ekarriko du kontratua suntsiaraztea, erakunde kontratugilearen borondatez.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. OINARRIZKO LIZITAZIO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Oinarrizko lizitazio-aurrekontua **Karatularen 6.1 puntuan** adierazten da.

Bestalde, kontratuaren prezioa zehazten da, halaber, **Karatularen 6.1 puntuan**.

Kontratuaren prezio horrek bilduko ditu kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak; besteak beste —informazio gisa soilik eta ez modu mugatzailean—, honako hauek:

- Kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak, Agiri honetan eta Gauzatze Proiektuan adierazten denaren arabera. Ez da a posteriori onartuko aldez aurretik azken prezioan barne hartu beharko liratekeen kontzeptuen ondoriozko fakturaziorik.

- Kontratuak berezkoak dituen kontzeptu guztiei dagozkienak eta hura egiteko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jaiegunetan egiten diren lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak, etab.), baita zergak (BEZa kanpo), aseguruak, lizentziak, garraio eta joan-etorriko gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokor guztiak ere. Bertan ere sartuko dira tasak (adibidez, bide publikoa okupatzeko tasak) eta obra guztien gaineko edozein motatako gastuak.

- Kontratua gauzatzeko kontratistak erabili behar dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipo, tresna, ekipo informatiko eta aparatu guztiak.

- Edozein obra-unitate behar bezala gauzatzeko eta amaitzeko beharrezkoak diren giza bitarteko, bitarteko osagarri eta material, eta lan guztiak; horiek prezioen banaketan edo deskribapenean zehaztuta ez agertu arren.

- Gauzatu behar diren lanetarako behar diren zerbitzu teknikoen prestazio guztiak.

- Dokumentazio teknikoaren arabera obra unitate guztiak eta kontratuko gainerako dokumentu guztiak osorik gauzatzea, Agiri honetan aurreikusitakoa betez.

- Zehaztutako material guztiak hornitzea, baita kontratuaren xedea amaitzeko behar direnak ere.

- Muntaia eta beharrezko instalazioak.

- Obrak gauzatzeko behar diren makineria eta instalazioak, instalatzeko materialak eta ekipamenduak eta behar diren gainerako bitarteko osagarriak, baita haiekin lotutako gastu guztiak ere (zergak, garraioa, zamalanak, zaintza eta kontserbazioa, etab.).

- Obrako, zaintzako edo biltegiratzeko instalazio osagarriak (etxolak, garitak, etab.) eraikitzea, eraistea eta erretiratzea, baita segurtasuneko eta higieneko arauak betetzeko egindakoak ere.

- Kontratua behar bezala betetzeko eskatutako argi, indar, ur, energia eta bestelako hornikuntzak eta kontsumoak, baita hartuneen eta obrako behin-behineko koadroen kostua ere, konpainia hornitzailearekin dagozkion buletinak egin arte.

- Garbiketa, bai lanak egiten diren bitartean bai lanak amaitu ondoren. Prezioan garbiketa osoa sartuta egongo da. Hala ulertuko da obretako zati bakoitza berehala erabili ahal izateko egokitzea.

- Kalitate kontrolari eta hondakinen kudeaketari dagozkien gastuak.

- Hondakinen kudeaketa dela eta Udaletxeei ordaindu beharreko edozein fidantza edo bermeri dagokion kopurua.

- Nahastuta dauden erakunde publikoen eta konpainia hornitzaileen aurrean obrak egiteko behar diren tramitazioko, kudeaketako eta baimenak lortzeko gastu guztiak.

- Halabeharrezko entseguak egitea.

- Segurtasun eta Osasun Planean xedatutakoa lantzea, garatzea eta abian jartzea, baita obren egoera orokor egokia eta segurtasuna bermatzeko gastu guztiak ere.

- Obrak gauzatzean eta, berariaz, urbanizazioan eragindako kalte eta apurtutako elementu guztiak konpontzea.

- Langile propioen eta hirugarrenei (pertsonak edo gauzak) eragindako kalteen aseguru-polizak, Agiri honetan finkatutako mugekin.

- Obrako zona osoa zaintzea eta babestea, eta obrako sarbideak kontrolatzea, indarreko legeriaren eta Administrazioaren eskaeren arabera.

- Zuzendaritza Fakultatiboak deitzen dituen obrako bileretara —astean bat, gutxienez— agertzea.

- Obraren errotulua, erakunde kontratugilearen identifikazio korporatiboarekin.

- **Karatularen 6.1 puntuan** zerrendatutako beste edozein kontzeptu.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia **Karatularen 6.2 puntuan** adierazitakoa da, 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Kontseiluaren eta Europako Parlamentuaren Zuzentarauak Espainiako antolamendu juridikora iraultzen dituzten Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 101. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako eta moduan kalkulatua.

Aurreikuspen horrek ez du konpromiso jakin bat sortzen erakunde kontratugilearentzat.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Karatularen 7. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatularen 8. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratugilearen kontratugile-profilean argitaratuko dira:

a) Lizitazioaren deialdiaren iragarkia.

b) Kontratuaren esleipenaren iragarkia.

c) Kontratuaren formalizazioaren iragarkia.

d) SPKLaren 63. artikuluan adierazitako gainerako informazioa.

Erakunde kontratugileak, profil horretara sartzeko, honako web orri honetara jo beharko du: : http://www.contratacion.euskadi.eus

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzailea behartuta egongo da behin betiko berme bat eratzera **Karatularen 9. puntuan** adierazitako zenbatekoaz.

Eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak egiaztatu beharko du adierazitako behin betiko bermea eratu izatea 10 egun balioduneko epean, Kontratazio Organoak ondorio horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Aipatutako behin betiko bermeak SPKLaren 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzungo die.

Bermea eratu ahal izango da SPKLaren 108. artikuluan jasotako moduetako batean; eta ez da beharrezkoa izango hura Gordailu Kutxa Nagusian eratzea.

Abal moduan ezarriz gero, Baldintza Agiri honi **I. eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren araberakoa izango da.

Bermea eratu izana bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahal izango da.

Bermearen gainean kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, kontratistak bermea berrezarri edo handitu beharko du –dagokion zenbatekoan–. Haiek gauzatu eta hamabost egun balioduneko epea izango du. Hala egin ezean, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, kontratistak behin betiko bermea berregokitu egin beharko du, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Kontratistak hamabost egun naturaleko epea izango du bermea egokitzeko, aldaketa-erabakia jakinarazten den datatik aurrera.

Bermea Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme-epea igaro ondoren eta kontratistak kontratuko betebehar guztiak bete dituenean.

Bermea itzultzeko, erakunde kontratugileak aldeko txostena eman beharko du aurretiaz.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLaren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko inolako debekurik ez duten eta kaudimena egiaztatzen duten pertsona naturalek edo juridikoek, espainiarrek edo atzerrikoek, kontratatu ahal izango dute erakunde kontratugilearekin.

Lizitatzaileek, halaber, kontratuen xede diren lanak gauzatzeko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa-gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izateko, ezinbestekoa izango da kontratuaren zerbitzuak haien estatutuen edo eratze-arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo esparruaren barruan egotea.

Erakunde kontratugilearekin kontratatzeko gaitasuna edukiko dute, nolanahi ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresa ez-espainolek edo Europako

Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten estatuetakoek, betiere dagokien estatuko legeriaren arabera, kasuan kasu zerbitzua egiteko gaikuntza badute. Kasu horretan, SPKLaren 67. artikuluan jasotakoa aplikatuko da.

Espresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan-kasuan zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Nazioarteko hitzarmenen ondoriozko Espainiaren betebeharrei kalterik egin gabe, Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten estatuetakoak ez diren pertsona fisikoek edo juridikoek txosten bidez egiaztatu beharko dute, atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela, era berean, Espainiako enpresen partaidetza kontratazioan, SPKLaren 3. artikuluan zerrendatutako sektore publikoko erakundea parekagarriekin, funtsean antzekoa izango den moduan. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari erantsiko zaio.

Karatularen 10. puntuan adierazten den kasuan, kontratua Europar Batasunetik kanpo dagoen enpresa bati esleitzen bazaio, enpresa horrek bulego bat irekin beharko du Espainian, bere operazioetarako ahaldunak edo ordezkariak izendatu beharko ditu, eta Merkataritza Erregistroan eman beharko du izena.

Erakunde kontratugilearekin kontratuak egin ditzakete, xede horrekin aldi baterako sortzen diren enpresari-elkarteek, eta ez dute eskritura publikorik formalizatu beharko, kontratuaren esleipena lortu arte. Edozein kasutan, SPKLaren 69. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

Lizitatzaileek gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte **Karatularen 10. puntuan** ezarritako kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo gaitasun profesional eta teknikoari dagokienez edo, hala badagokio, puntu horretan adierazitako taldean, azpitaldean eta kategorian sailkatuta egon behar dute.

Europar Batasuneko kide diren enpresari ez-espainiarrek edo Espazio Ekonomiko Europarrari buruzko Akordioa sinatzen duten Estatuetako enpresariek ez dute sailkapena ziurtatu beharko, kontratura euren aldetik edo enpresa-elkarte baten barruan sartuta aurkezten diren kontuan hartu gabe, baina euren kaudimena frogatzeko obligazioari kalterik egin gabe.

Hala badagokio, **Karatularen 10. puntuan** adierazitako giza bitartekoak eta/edo bitarteko materialak, gutxienik, atxikiko dira kontratua gauzatzeko.

Gainera, lizitatzaileek bete beharko dituzte **Karatularen 10. puntuan**, hala badagokio, adierazten diren berariazko eskakizunak.

Lizitatzaileei eskatuz gero kontratua gauzatzeko zenbait giza bitarteko eta/edo bitarteko material atxikitzeko konpromisoa, konpromiso hori funtsezko kontratuzko

betebeharra izango da SPKLaren 211.f) artikuluan jasotako ondorioetarako. Hortaz, betebehar hori ez betetzeak berekin ekarriko du kontratua suntsiaraztea, erakunde kontratugilearen borondatez.

Kontratua ez suntsiarazteko hautabide gisa, kontratistak kontratua gauzatzeko atxikitako pertsona —pertsonal propioa edo azpikontratatutako enpresakoa izan berdin dio— bere kabuz aldatuko balu, erakunde kontratugileak hitzemanda dagoen pertsona berehala atxikitzea exijitu ahal izango du, edota, hautabidez, nahiz enpresa kontratistarekin zerikusirik ez duen ezintasunagatik, pertsona hori prestakuntza eta esperientzia bereko beste giza bitarteko batzuekin ordezteko exijitu ahal izango du. Pertsona horrek erakunde kontratugilearen berariazko adostasuna izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo bitartekoak atxikitzeko betebeharra egiztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu ahal izango dira lizitatzaileak —haiekin dituzten lotura juridikoak edozein izanik ere—; baldin eta frogatzen bada kontratuaren indarraldi osoan kaudimen hori eta/edo bitarteko hori benetan dagoela eta lizitatzaileek jotzen duteneko erakundeak kontratatzeko debekurik ez badu.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko asmoa duten lizitatzaileek hala adierazi beharko dute 1. gutun-azalean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean (zehazki KEDBaren II. zatiko C sailean).

Halaber, eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak asmoa badu beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko, frogatu beharko du beharrezko bitarteko guztiak izango dituela. Horretarako, erakunde horien idatzizko konpromiso bat aurkeztuko du (**II. eranskinean** jasotako ereduaren arabera landua).

Konpromiso hori notarioaren aurrean sinatu beharko du/dute eskaintza hoberena aurkezten duen lizitatzaileak jotzen dueneko erakundeak/erakundeek, eskatutako kaudimena eta/edo bitartekoak atxikitzeko eskatutako konpromisoa egiaztatzeko. Adieraziko du/dute lizitatzaileak parte hartu behar duen lizitazioaren baldintzak beren hedadura osoan ezagutzen dituela/dituztela, eta aipatutako atxikitzeko bitartekoak eta/edo kaudimena badituela/badituztela, eta horren ziurtagiri bat aurkeztuko du/dute (17. klausulan jasotako moduan). Gainera, lizitatzaile horren esku, esleipendun gertatuz gero, kontratua gauzatzeko behar diren baliabide guztiak jartzeko borondate atzeraezina agertu behar du/dute (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta; erakunde kontratugileak berariaz baimendu behar du haiek ordezkatzea edo aldatzea). Idatzi hori aurkeztearen ondorioa izango da erakunde kontratugileak konpromiso hori onartzen duela, baldin eta lizitatzailea esleipendun suertatzen bada.

Konpromiso hori aurkeztuko du eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak 10 egun balioduneko epean, Kontratazio Organoak ondorio horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak —klausula honetan jasotakoak— bete egin beharko dira eskaintzak aurkezteko azken datan eta kontratua gauzatzeko unean iraun beharko dute.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIA ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

Agiria eta gainerako dokumentazio osagarria eskuragarri egongo dira lizitazio-iragarkia argitaratzeko egunetik eta erakunde kontratugilearen kontratugile-profilean proposamenak aurkezteko epe osoan.

Agiria eta gainerako dokumentazio osagarria bitarteko ez-elektronikoen bidez eskuragarri jarriz gero, **Karatularen 11.1 puntuan** adieraziko da.

13.2. AURKEZTEKO BITARTEKOAK

Proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak betez, baldin eta ez den SPKLaren xedapen gehigarri horretako 3. atalean aurreikusitako baldintzaren bat ematen eta **Karatularen 11.1. puntuan** hala adierazten.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko beharrezko informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta dataren baliozkotzea barne, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren webgunean adierazten dira honako helbide honetan: http://www.contratacion.euskadi.eus

13.3. ARTXIBO ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenak agiri honetara eta bere karatulara, Gauzatze Proiektura eta kontratuzko gainerako dokumentaziora egokituko dira; eta haiek aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea haien klausulen osotasuna, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Gutun-azal edo artxibo elektroniko bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua izango du.

1. gutun-azala. “AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”

Lizitatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Erantzukizunpeko adierazpena kontrataziorako Europako dokumentu bakarraren (aurrerantzean, KEDB) formulariora egokituko da. Berori **III.**

eranskin gisa gehitu da Agiri honetara eta jarraian adierazten denaren arabera beteko da:

- KEDBa betetzeko, erregelamendu honen I. Eranskinean bildutako jarraibideak bete beharko dira: 2016/7 Betearazpen Erregelamendua (EB), 2016ko urtarrilaren 5ekoa, kontrataziorako Europako dokumentu bakarraren formularioa ezartzen duena.

- KEDBko "IV. zatia: Hautatzeko irizpideak" atal zehatzari dagokionez, lizitatzaileek soilik α atala bete beharko dute: "Hautatzeko irizpide guztiei dagokien adierazpen globala".

- Lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenera eta/edo bitartekoetara jotzen badu (Agiri honen 12. klausularen arabera), erakunde horiek guztiek, halaber, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute. Horretan jasoko da KEDBaren II. zatiko A sailean ("Operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B sailean ("Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa"), eta III. zatian eskatzen den informazioa.

- Zenbait enpresari aldi baterako elkartean aurkezten diren kasu guztietan, parte hartzen duen enpresa bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena ekarriko da. Horretan agertuko da KEDBaren II.etik V.era arteko zatietan eskatzen den informazioa.

2. **Karatularen 10. puntuaren** arabera, gutxieneko giza bitarteko eta/edo bitarteko material zehatzak kontratua gauzatzera atxikitzeko eskatzen bada, giza bitarteko eta/edo bitarteko material horiek kontratua gauzatzera atxikitzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute lizitatzaileek, Agiri honetan **IV. Eranskin** gisa erantsitako ereduari jarraituz.

3. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresariek elkartea eratzen dutenen izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresariak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahaldun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, enpresariek ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

4. Atzerriko enpresek berariazko aitorpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziko dute.

OHARRA:

Erakunde kontratugileak lizitatzaileei eskatu ahal izango die ziurtagiri guztiak edo horien zati bat aurkez dezaten; kontuan hartuz gero arrazoizko zalantzak daudela 1. puntuan adierazitako adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari dagokionez, edota hori beharrezkoa denean prozedura egoki garatzeko.

Aurrekoa gorabehera, enpresaria inskribatuta badago Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean, enpresako espediente birtualtzat, dokumentuen biltegiratze elektronikoko sistematzat edo aurrekalifikazioko sistematzat, eta horiek organoentzat doan eskuragarriak direnean, ez du betebeharrik izango ziurtagiriak nahiz beste dokumentu-frogarik aurkezteko, aipatutako lekuetan inskribatuta dauden datuei dagokienez.

2. gutun-azala. "KUANTIFIKATZEKO BALIO JUDIZIOA BEHAR DUTEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek **Karatularen 11.2 puntuan** adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute gutun-azal honetan.

Lizitatzaileak kontu berezia izan beharko du gutun-azal honetan gehitu beharreko dokumentazioa prestatzeko garaian; izan ere, edukiari dagokionez, emandako jarraibideetara egokitu beharko baitu. Orobat, ezin izango da eskaintzaren inguruko orientabideak edo formulak erabilita ebalua daitezkeen alderdiak jakitera eman ahal izango dituen erreferentziarik egin.

Printzipio horiek urratzen dituzten eskaintzak ezetsi eta prozeduratik baztertuko dira.

Era berean, erakunde kontratugileak eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

Karatularen 12. puntuaren arabera, kontratua gauzatzeko atxiki beharreko giza bitartekoak baloratzen badira, kontratistak kontratua gauzatzeko atxikitako pertsonak bere aldetik aldatzen baditu, erakunde kontratugileak konprometitutako pertsonak berehala atxikitzeko exijitu ahal izango du edo, kontratistarekin zer ikusia ez duten arrazoiengatik hori egitea ezinezkoa bada, pertsona horiek antzeko prestakuntza eta esperientzia duten batzuengatik ordezkatzea exijitu ahal izango du. Pertsona horiek erakunde kontratugilearen berariazko adostasuna izan beharko dute.

3. gutun-azala. "FORMULAK ERABILITA EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek, formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkezteko, Agiri honi **V. eranskin** gisa atxikitako eredura egokitu beharko dute.

Erakunde kontratugileak, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, 1, 2 eta 3. gutun-azaletan aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna ziurtatu ahal izango du. Enpresak aurkeztutako datuetan edo egoeretan faltsutasunik aurkitzen bada, horrek kontratua baliogabetzea ekar dezake, kontratistari berari egozteko moduko ez betetzeagatik.

14. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Esleipen-irizpideak, dagokien haztapenaz adierazita, izango dira **Karatularen 12. puntuan** jasotakoak.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Kontratazio Organoak ebaluazio-batzorde baten laguntza izango du. **Karatularen 13. puntuan** adierazten dira batzorde horren kideak.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak aurretiaz kalifikatuko du legezko epean eta eran aurkeztutako 1. gutun-azalean jasotako dokumentazioa ("Aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa"). Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak topatuko balitu, erakunde kontratugileak lizitatzaileari hiru egun naturaleko epea emango dio haiek zuzentzeko.

1. gutun-azala gehienez hogei egun naturaleko epean irekiko da, dokumentazioa aurkezteko epea amaitzen den datatik hasita.

Jarraian, 2. gutun-azala ("Kuantifikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da, bertan jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratzeko asmoz.

Kuantifikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideei haztapen handiagoa emanez gero formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei dagokiena baino, kuantifikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideak baloratzea **Karatularen 14. puntuan** adierazitako kideek osatutako batzorde bati egokituko zaio.

2. gutun-azalean jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren irekiko da 3. gutun-azala ("Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa").

3. gutun-azala (“Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) ireki aurretik, balio-judizio baten arabera kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioaren balorazioaren emaitza jakinaraziko zaie lizitatzaileei.

Hori egin ondoren irekiko da 3. gutun-azalean (“Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) jasotako dokumentazioa, berori aztertu eta baloratzeko asmoz.

3. gutun-azala (“Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) egintza publikoan irekiko da, Karatulako 11.1. puntuaren arabera proposamenak aurkezteko bitarteko elektronikoak erabiltzen direnean izan ezik.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu 1098/2001 EDaren 84. artikuluan jasotako arrazoietakoren batean sartuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztutako proposamenen zerrenda Kontratazio Organoari helaraziko dio, beheranzko hurrenkeran sailkatuta —**Karatularen 12. puntuan** ezarritako esleipen irizpideak kontuan hartuz—, eta eskaintza hoberena identifikatuko du.

Lizitatzaile jakin bat kanporatzea erabakitzen bada, erakunde kontratugileak kanporatutako lizitatzaileari berariaz emango dio kanporatzearen berri.

Proposamena egin aurretik, bidezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Puntuazio hoberena lortu duen lizitatzailearen eskaintza ezohiko moduan baxutzat hartzen bada, **Karatularen 12. puntuan**, hala badagokio, adierazitako parametroen arabera, Ebaluazio Batzordeak SPKLaren 149. artikuluan jasotako prozedurari jarraituko dio lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan.

Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik ematen proposatutako lizitatzailearen alde erakunde kontratugilearen aurrean. Nolanahi ere, Kontratazio Organoak kontratua egindako proposamenari jarraiki esleitzen ez badu, erabaki hori arrazoitu egin beharko du.

17. KONTRATUA ESLEITZEA

Esleipenerako lizitatzailea aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Bestela, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu behar du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.

Kontratazio Organoak onartu ondoren Ebaluazio Batzordeak egindako proposamena, erakunde kontratugileak errekerimendua egingo dio proposamen hoberena egin duen lizitatzaileari hamar egun baliodunen barruan, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita, honako dokumentazio hau aurkez dezan:

1. Eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko datan, honako eskakizun hauek betetzen dituenaren ziurtagiriak: erakunde kontratugilearekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak eta agiri honen 12. klausulan eskatutako gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ez izateari buruzko baldintza guztiak, jarraian adierazten den eran.

   Aldi baterako elkarte batean sartuta parte hartu nahi duten enpresariek proposamena aurkeztuz gero, aipatutako dokumentazioak elkartea osatu behar duten enpresa guztiena izan behar du.

   (i) Lizitatzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasunari eta jarduteko gaitasunari buruzko ziurtagiriak:

   - Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko ahalmena frogatzeko, dokumentu hauek aurkeztuko dira: eratzearen eskritura edo dokumentua, estatutuak edo fundazio-egintza, jarduerak bete beharreko arauak jasotzen dituztenak, dagokien erregistro publikoan inskribatuak, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.

   - Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresa ez espainolei dagokienez, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, kasuan kasu Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar da, edo zinpeko aitorpen edo ziurtagiri bat aurkeztu bestela, ezar daitezkeen Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.

   - Atzerriko gainerako enpresarien jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia-misio iraunkorraren txostena beharko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-esparruko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

   - Pertsona fisikoak diren enpresarien kasuan, nortasun agiri nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko.

   - Besteren izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek nortasun agiri nazionalaren kopia eta horretarako behar besteko ahalordea aurkeztuko dute. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edo, hala badagokio,

dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, (i) atal honetan aipatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitatzaileak ziurtagiriak adierazitakoa aldatu ez dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpen sinatu bat aurkeztuko du.

(ii) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen tekniko edo profesionalari buruzko ziurtagiriak, edo, hala badagokio, agiri honen 12. klausulan eskatutako sailkapenarenak.

- <u>Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa.</u> Hala badagokio, lizitatzailearen urteko negozio-bolumena honela egiaztatuko da:

  - Merkataritza Erregistroan onartutako eta jarritako urteko kontuen bidez, enpresaria erregistro horretan izena emanda balego; bestela, izena emanda egon behar duen erregistro ofizialean jarritakoen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatuak ez dauden banakako enpresariek Merkataritza Erregistroak legeztatutako urteko kontuen eta inbentarioen liburuen bitartez frogatuko dute euren urteko negozio-bolumena.

  - Lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, haren negozio-bolumena adierazita.

- <u>Kaudimen teknikoa edo profesionala.</u> Hala dagokionean, eskatutako kaudimena egiaztatuko da azken bost urteetan egindako obren zerrenda baten bidez, eta obra horiek zuzen gauzatu izanaren ziurtagirien bidez abalatuta. Ziurtagiri horietan, obrak zenbatengatik, noiz eta non gauzatu diren adieraziko da. Halaber, obra horiek profesioa arautzen duten erregelen bidez eta behar bezala egin ziren zehaztuko da.

  Kontratuen balio zenbatetsia 500.000 euro baino txikiagoa den kasuetan, kontratista enpresa sortu berria denean (halakotzat hartuta bost urtetik beherako antzinatasuna duena), haren gaitasun teknikoa egiaztatuko da, **Karatularen 10. puntua**ren arabera, SPKLaren 88.1. artikuluko b) eta f) letren artean adierazitako bide batetik edo gehiagotatik—baina ez da inola ere

aplikatzekoa izango horren a) letran ezarritakoa, obra kopuru jakin bat gauzatzeari buruz—.

- Sailkapena. Hala badagokio, eskatutako sailkapena organo eskudunak luzatutako ziurtapen bidez frogatuko da. Horrekin batera, ziurtapen hori indarrean dagoela eta bertan adierazitako baldintzak aldatu ez direla adieraziko duen lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da. Esleipendun suertatuz gero, berriro aurkeztuko da agiria, kontratua formalizatzean.

  Ziurtapenak lizitatzailea adierazitako multzoan eta azpimultzoan eta eskatzen den kategorian edo maila goragoko batean sailkatuta dagoela ziurtatuko du.

  Ziurtapen horrekin, halaber, Klausula honen 1. (i) atalean adierazitako baldintzak ziurtatuko dira, hau da, lizitatzailearen eta, hala badagokio, bere ordezkariaren jarduteko gaitasuna ziurtatuko dira.

(iii) Lizitatzailea SPKLaren 71 artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetan erori ez dela egiaztatzen duen Agiri honen **VI. Eranskina**ri gehitutako ereduaren araberako erantzukizunpeko adierazpena.

(iv) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen egiaztagiria.

(v) **Karatularen 10 puntuan**, hala badagokio, zehazten diren baldintzak betetzen direnaren agiriak.

2. Hala badagokio, enpresak kontratua gauzatzeko hitz emandako giza bitartekoak eta bitarteko materialak eskaintzeko modua duela ziurtatzen duen dokumentazioa.

(i) Hala badagokio, kontratua gauzatzeko hitzemandako giza bitartekoei dagokienez, aukeratutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Kontratua gauzatzeko atxikitako talde osoaren izen-identifikazioa, curriculum vitaeari dagozkion fitxekin batera. Horietan egiaztatuko da ezarritako eskakizunak betetzen direla:

1. Titulazio akademiko ofiziala.

2. Dagokion arloan duen esperientzia.

3. Hala badagokio, erakunde kontratugileak eskatzen duen beste edozein alderdi.

b) Giza bitarteko horiek guztiak egiazki enpresaren esku daudela egiaztatzeko dokumentazioa.

Datu pertsonalak babesteren arloan aplikatzekoa den Estatuko eta Europar Batasuneko araudia jasotakoaren arabera, eta giza bitartekoei buruzko aipatutako dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, honako hau jasoarazten da: (i) informazio hori bildu eta erabiltzeak berekin ekarriko du datu pertsonalak tratatzea lizitatzailearen aldetik, tratamenduaren erantzule gisa; eta (ii) informazioa erakunde kontratugileari entregatzeak, klausula honetan jasotakoa betetzeko, berekin ekarriko du lizitatzaile horrek datu pertsonalak jakinaraztea, lagatzaile gisa.

Ondorio horietarako, hautatutako lizitatzaileak bete egin beharko ditu datua babestearen arloan aplikatzekoa den Estatuko eta Europar Batasuneko araudian xedatutakoaren ondorioz hari dagozkion betebeharrak, aurreko paragrafoan aipatutako datuak tratatu eta lagatzeari dagokionez. Zehazki, eta bestelako betebeharrei kalterik egin gabe, tratamenduaren arduradun den heinean aukeratutako lizitatzaileak lortu egin beharko du, bere ardura bakarpean, interesatuen oniritzi kontziente eta informatua datu pertsonal horiek jakinarazi ahal izateko. Alderdi hori erakunde kontratugilearen aurrean egiaztatu beharko du, eskaera egiten zaion guztietan.

(ii) Hala badagokio, kontratua gauzatzeko hitzemandako bitarteko materialei dagokienez, aukeratutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Kontratua gauzatzera atxikitako bitarteko materialen identifikazioa, ezarritako eskakizunak betetzen direnaren egiaztagiriekin batera.

b) Bitarteko material horiek guztiak egiazki enpresaren esku daudela egiaztatzeko dokumentazioa.

Erakunde kontratugileak eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

3. Agiri honen 11. klausulan jasotako behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen frogagiria.

4. Hala badagokio, adierazpenen notario-akta aurkeztuko da, lizitatzaileak, eskatzen den kaudimena duela eta/edo kontratura ezarritako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa duela egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu nahi badu, **II. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkartearen lege-sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

Erakunde kontratugileak eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak topatuko balitu, erakunde kontratugileak lizitatzaileari hiru egun naturaleko epea eman ahal izango dizkio haiek zuzentzeko.

Egokiro beteko ez balitz adierazitako epean dokumentua aurkezteko eskakizuna edo aurkeztutako dokumentazioak akats edo ez-egite konponezinak balitu, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta oinarrizko lizitazio aurrekontuaren ehuneko 3 (BEZa kanpo) eskatuko zaio zigor gisa. Halakoetan, hurrengo lizitatzailearen dokumentua jasoko da, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran.

Kontratazio Organoak kontratua esleituko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan eta proposamenak irekitzen direnetik gehienez ere bi hilabeteko epean.

Kontratazio Organoak ebazpen arrazoitu batean jasoko du esleipen-erabakia, eta hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko die, jakinarazpenak jasotzeko haiek adierazitako lehentasunezko bitartekoaren bidez. Erabaki hori kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 egun naturaleko epean.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Dokumentu hori zehatz-mehatz egokituko da lizitazioaren baldintzetara. Kontratua formalizatzen duen dokumentuan ezin izango dira inola ere sartu kontratazioaren baldintzak aldatzea ekarriko duten klausulak.

Esleipendunak, haatik, kontratuaren eskritura publikoa egiteko eska dezake. Kasu horretan, bere kontura izango dira sortzen diren gastuak.

Kontratua hamabost egun balioduneko gehieneko epearen barruan formalizatuko da, lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

Kontratuaren formalizazioa argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, gehienez hamabost egun naturaleko epean, kontratua burutu ondoren, erakunde

kontratugilearen kontratugile-profilean.

Esleipendunari egoztekoak zaizkion kausengatik, ez balitz kontratua formalizatu adierazitako epearen barruan, oinarrizko lizitazio-aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa (BEZa kanpo) eskatuko zaio, zigor gisa. Zenbateko hori ordainduko da, lehenik, behin betiko bermearen kontra, halakorik eratu izan balitz, SPKLaren 71. artikuluko 2) atalaren b) letran ezarritakoari kalterik egin gabe. Halakoetan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran, eta agiri honen 17. klausulan exijitutako dokumentazioa eskatu ahal izango zaio. Lizitatzaileak hamar egun balioduneko epea izango du dokumentazio hori aurkezteko.

19. ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA ETA KONTRATUAREN ARDURADUNA

Zuzendaritza Fakultatiboak kontratuaren arduradunaren funtzioak beteko ditu. Arduradun horri dagokio kontratua gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea, itundutako zerbitzua zuzen betetzen dela ziurtatzeko, erakunde kontratugileak esleitzen dizkion ahalmenen esparruan.

Kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

20. ZUINKETA EGIAZTATZEKO AKTA

Zuinketa egiaztatzeko akta kontratua formalizatzen den unetik hasita gehienez hilabeteko epean egingo da.

Zuinketa egiaztatzeko aktan Gauzatze Proiektuaren kontratuzko dokumentuekiko zuinketa hori bat ote datorren jasoko da. Berariaz bereziki kontuan hartuko dira obraren ezaugarri geometrikoak, behar diren lursailak okupatzeko baimena eta kontratua betetzean eragina izango duen edozein puntu.

Aktaren ale bat erakunde kontratugileari igorriko zaio, beste bat kontratistari eta hirugarren alea Zuzendaritza Fakultatiboari.

Obra ezingo da hasi zuinketa egiaztatzeko akta egin arte edo bertan oinarrizkoak diren ustezko erreserbak jaso arte. Kasu horretan obren hasiera eten egingo da edo obrak behin betiko etetea erabakiko da.

Edozein kasutan, obra ezingo da hasi laneko segurtasun- eta osasun-plana aurretik onartzen ez bada.

21. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua jarraian adierazten diren baldintzen arabera gauzatuko da:

a) Kontratistak kontratua gauzatuko du horren termino eta baldintzen arabera, Administrazio Klausula Berezien Agiri honetan eta horren Karatulan xedatutakoari jarraituz, eta, baita ere, Gauzatze Proiektuan eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan jasotakoari jarraituz. Gainera, Zuzendaritza Fakultatiboak, haren interpretazioan, kontratistari ematen dizkion jarraibideak kontuan hartuko dira.

b) Kontratua lotuta dago indarrean dauden legezko, araubidezko eta konbentziozko xedapenak betetzera, aplikatzekoak direnean lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren alorrean.

Testuinguru horretan, kuantifikatzeko judizio-balioa behar duten irizpideei buruzko dokumentazioa jasotzen duen 2. gutun-azalean, lizitatzaileek, esleipendun suertatuz gero, adieraziko dute zein hitzarmen kolektibo izango zaien aplikatzekoa kontratuaren xede den jarduera betetzen duten langile propioei edo azpikontratatutako enpresako langileei. Kontratua gauzatuko duten langileei kontratistak aplikatuko dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-erabakian jasoko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Halaber, kontratua esleitu eta gero langileei egiazki aplikatuko zaizkien lan-baldintzen inguruan eskatu zaion informazio guztia ematera behartuta egongo da kontratista.

Kontratistak, kontratuaren gauzatze osoan zehar, aplikatzekoa den hitzarmen kolektibo sektorialaren eta langilearen kategoria profesionalaren araberako ordainsaria ordaindu beharko du. Aipatutako ordainsaria ezin da inola ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.

Atal honetan xedatutakoak gauzatzeko baldintza bereziaren eta funtsezko betebeharraren izaera izango du SPKLaren 211.f) artikuluan jasotako ondorioetarako, eta, beraz, horiek ez betetzea kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da, erakunde kontratugileak hala nahi badu.

c) Kontratua kontratistaren arriskuz eta ausaz gauzatuko da.

d) Obra gauzatzera atxikitako langileak kontratistaren mende egongo dira. Honek, enpresari den aldetik, dagozkion eskubide eta betebehar guztiak izango ditu langile horiekiko.

Kontratistaren ardura da, halaber, bere langileek segurtasun, higiene eta laneko osasunaren alorretan indarrean dagoen araudia betetzen dutela, eta Kontratazio Organoak funtzionamendu orokorrerako ezar dezakeen araudia betetzen dutela ziurtatzea.

Oro har, kontratistak enplegatzaile izateagatik dagozkion betebehar guztien aurrean erantzungo du, lan-harremana arautzen eta garatzen duten arauak edo beste mota batekoak (baldin badaude eta langileentzako hobeak izango balira bakarrik) bete beharko ditu, baita enpresaren edo azpikontratistaren eta langileen artean dauden harremanetatik eratorritakoak ere. Edozein kasutan, erakunde kontratugileak ez du ordainduko aipatutako arau bat urratzeagatik eskuduntza duten organismoek ezar dezaketen isunik edo zigorrik edo ez du inolako erantzukizunik edukiko. Kontratistaren betebeharra izango da aipatutako xedapen guztiak betetzen direla zaintzea eta inolako gorabeherarik gertatuz gero, erakunde kontratugileari berehalakoan jakinaraziko dio idatziz.

Kontratista izango da arduradun bakarra kontratua gauzatzeko ardura duten langileekin —langile propioekin edo noizean behin azpikontratatzen direnekin— lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). Erakunde kontratugileak ez du lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ezta Gizarte Segurantzarekin edo zerga-esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrei dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua gauzatzean gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak.

e) Edozein kasutan, kontratistak hemen jasotako obligazioak ez betetzeagatik erakunde kontratugileak ordaindu beharko lukeen guztiagatik, kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio enpresa horrek enpresa kontratugileari, ebazpen judizial edo administratibo bidez hala inposatzen zaion arren.

f) Kontratistak ezar daitekeen ingurumen-araudia beteko du derrigorrez; bereziki, eraiste-hondakinen kudeaketari dagokion araudia.

g) Kontratista obrak gauzatzeaz gain, haiek kontserbatzera ere behartuta egongo da. Halaber, obrak jaso arte, lursailak eta bertan kokatutako ondasunak zaintzeaz arduratuko da.

h) Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitakotik ondorioztatutako obligazioak bete beharko ditu kontratistak. Halaber, bere jardueren barruan eta bere kontura eta erabakiz gauzatuko duen datu pertsonalen tratamenduaren ondorioz, kontratua indarrean dagoen bitartean aplikatzekoa den datuak babesteari lotutako estatuko zein Europar Batasuneko edozein arautan bildutakoa ere bete beharko du, tratamendu horren arduradun den aldetik.

Erakunde kontratugilearen kontura datu pertsonalen balizko tratamenduarekin lotuta **Karatularen 17. puntuan** zehazki ezartzen denari kalterik egin gabe finkatzen da betebehar hori.

i) Kontratista behartuta egongo da, hala badagokio eta berariaz, **Karatularen 15. puntuan** adierazten diren baldintzak betetzera.

22. KONTRATU BETEBEHARRAK

Honakoak kontratu-betebeharrak izango dira:

a) Kontratuaren betebehar nagusia bere klausuletan, eta agiri honetan eta Gauzatze Proiektuan ezarritakora hertsiki lotuta gauzatzea.

b) Obra epean eta, hala badagokio, Agiri honetan finkatutako epe partzialetan eta kontratistaren eskaintzan gauzatzea, esleipendunak kasu bakoitzean proposatutako obra-plana eta laneko programa betez.

c) Hala badagokio, gainerako kontratistekin koordinazio zehatza eta puntuala, Agiri honetan adierazitako baldintzetan, eta kasurako Zuzendaritza Fakultatiboak emango dituen aginduak betetzea.

d) Eskaintzan hitzemandako giza bitarteko —bertako langileak eta azpikontratatutako enpresako langileak izan daitezke— guztiak kontratura atxikitzea, eta obra epearen barruan gauzatzeko behar diren ekipoak, makineria eta bitarteko osagarriak aurkeztea, baita Zuzendaritza Fakultatiboak idatziz agintzen dituenak ere. Kontratistak obra gauzatzeko erabiliko dituen material guztiak Gauzatze Proiektuan eta eskaintzaren arabera definitutakoetara doitu beharko dira. Edozein kasutan, Zuzendaritza Fakultatiboak onartu beharko ditu, normalizatuak izango dira eta aitortutako berme teknikoa izango dute. Material horiek eskuratu aurretik, kontratistak haien laginak aurkeztuko ditu Zuzendaritza Fakultatiboak onar ditzan. Zuzendaritzaren iritziz, behar bezalako baldintzak betetzen ez dituzten material guztiak atzera botako ditu.

e) Kontratua gauzatzeko atxiki behar dituen edozein motatako bitartekoen, makinariaren eta ekipoen inguruko edozein erabilera eta/edo ustiapen eskubide eta lizentzia baimendutako iturrietatik eta kostu bakar batekin eskuratzea.

f) Aurretik eta berariaz, lanetara atxikitako teknikariak aldatzeko erakunde kontratugilearen baimena eskuratzea. Lan horiek egiteko ezagutza eta/edo trebetasun tekniko kualifikatuak behar direnean eta euren kalitateak lana asko hobetzen dutenetan. Hori guztia berariaz jasota dago proposamen teknikoan.

g) Agiri honetako 21. klausulako indarrean dauden lege-xedapenak, araudiari lotuak eta xedapen konbentzionalak, eta laneko, Gizarte Segurantzako, eta laneko segurtasun eta osasuneko esparruetan —bigarren gidoian jasotako baldintzetan— aplikatzekoak direnak, betetzea. Testuinguru horretan, kontratistak, kontratuaren gauzatze osoan zehar, aplikatuko den hitzarmen

kolektiboaren eta langilearen kategoriaren araberako ordainsaria ordaindu beharko du. Aipatu ordainsariak ezin du inola ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.

h) Obrak egikaritzea AUSAko instalazioen arriskuak kontuan hartuz, eta, hala badagokio, instalazio horien lan prozedurak kontuan izanik. Ondorio horietarako, lanak AUSAko instalazio barruan egiten badira, kontratistak jardueren koordinazio bilera bat egin beharko du AUSArekin.

i) Behin betiko bermeari eustea eta hura berritzea.

j) Kontratua gauzatzen den bitartean, Agiri honen 24. Klausulan kontratistari eskatzen zaizkion estaldurak eta aseguruak kontratatuta edukitzea.

k) Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarreni eragin ahal zaizkien kalte-galera guztien kalte-ordainak.

l) Langileak berehala erretiratzea eta ordezkatzea obran, hauek euren lana behar bezala ardura eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, lanak egitean ardura nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. Hori guztia Zuzendaritza Fakultatiboak egindako eskaeratik hasi eta, gehienez, hogeita lau orduko epean.

m) Halaber, kontratistak langileak berehala ordezkatu beharko ditu beharrezkoa denean, gaixotasun, opor, baimen, lizentzia, istripu eta abarren ondorioz izandako bajagatik lanpostua betetzeko, kontratua behar bezala eta etengabe gauzatuko dela bermatuz.

n) Zuzendaritza Fakultatiboak erabakitzen duten obra-bilera guztietara bertaratzea, lanen martxa egokia eta gainerako ofizioekin koordinazioa ahalbidetzeko.

o) Jarduera burutzeko eta lanak gauzatzeko beharko liratekeen lizentzia, oniritzi eta baimen guztiak eskuratzea, eta udalaren baimenak kudeatzea, bereziki, aldamioak, ibiak, hesiak ipintzeko, hartuneak egiteko galtzadak irekitzeko, garabiak muntatzeko eta martxan jartzeko eta abar egiteko. Horretaz gain, aipatutako lan horiek guztiek eragindako tasak eta gainerako zergak eta gastuak ordaintzea.

p) Erakunde eskudunetan aurkeztu behar diren proiektuak idaztea eta ikus-onestea, sareetara eta zerbitzuetara loturak, behin-behineko eta behin betiko hartuneak egiteko alta eta funtzionamendu-baimena eskuratzeko eta, oro har, instalazioek behar bezala eta legez funtzionatzeko behar den guztia eskuratzeko. Gainera, lan horiek eragindako gastuak ordaindu behar dira.

q) Obrak hasi baino lehen kalitatearen kontrolerako plana aurkeztu beharko du kontratistak, hala nola, AUSAri eman beharko dizkio kalitate plan hori

egikaritzeko egiten den entsegu bakoitzaren emaitzak eta amaierako txostena. Kalitatearen kontrolerako plana AUSAk onartu beharko. Gainera, AUSAri kalitatearen kontrolerako jardueren egikaritzearen berri emango zaio, horiek egin baino lehen, laginak hartzea barne.

r) Hondakinen kudeaketarako plan bat aurkeztu beharko du kontratistak obrak hasi baino lehen (AUSAk onartu beharko du plan hori). Halaber, hondakinen kudeaketari buruzko hileroko txosten bat egin beharko du eta AUSAri aurkeztu; hala nola, amaierako txosten-laburpen bat aurkeztu beharko du obren exekuzio bukaeran.

s) Kontratistak obraren bukaerako planoak ("as built" planoak deritzanak) eman beharko dizkio AUSAri; plano horiek barne hartu beharko dituzte sareak formatu estandarrean eta IGS ("Informazio Geografikoaren Sistemak) programekin bateragarriak direnak, AUSAk emandako ereduaren arabera. Planoek jaso beharko dituzte ere instalazio-erakinak dwg eta pdf formatoan, instalazio elektrikoak eta dagozkion programazioak AUSAk erabiltzen dituen formato arautuetan eta material eta ekipo guztiei dagokien dokumentazio teknikoa.

t) Obrak gauzatzen direnean eta, berariaz, urbanizazioan eragindako kalte eta apurtutako elementu guztiak konpontzea.

u) Obraren amaierako egoeraren dokumentazioa eta instalazioen eta ekipoen dokumentazio teknikoa prestatzea eta Zuzendaritza Fakultatiboaren esku jartzea, baita dagozkien funtzionamenduko eskuliburuak eta jarraibideak ere.

v) Bertan dauden egiturak (zintarriak, kale-argiak, barandak, etab.) desmuntatzea, eta makineria eta langileak sartzeko eta ateratzeko arrapalak, eskailerak, jasogailuak eta ateak ipintzea, obrak segurtasun- eta osasun-dokumentuetan erabakitakoaren arabera egingo direla bermatuz.

w) Obrak gauzatzeko beharrezkoak izango diren ekipo, elementu eta material guztiak biltzea, fabrikatzea, hornitzea eta muntatzea.

x) Erabiliko diren instalazioen material eta elementu guztien laginak Zuzendaritza Fakultatiboak onartzeko aurkeztea eta zuzendaritza horri egokiak iruditzen zaizkion materialen azterketak egitea.

y) Obra-etxolak eta beharrezkoak diren hartune guztiak (elektrizitatea, telefonoa, ura, etab) instalatzea, mantentzea, babestea, konpontzea, erretiratzea eta ordezkatzea. Halaber, aipatutako horien eta bertan egiten diren konponketen ondoriozko kontsumoaren gastuak ordaintzea, konpainia hornitzailearekin dagozkien krokadurako buletinak egin arte.

z) Obrak identifikatzeko kartelak —erakunde kontratugileak erabakitzen duen ezaugarriekin— fabrikatzea, garraiatzea eta instalatzea, zuinketa egiaztatzeko

akta sinatzen den unetik hasi eta hamabost egun balioduneko epean. Eta kartel horiek erretiratzea.

aa) Obretara sarrera, lanak egiten diren zonan zirkulazioa eta obra horien ondorioz arriskutsuak izan daitezkeen puntuak adierazteko behar diren seinaleak instalatzea, baita pertsonentzako eta ondasunentzako beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartzea ere.

bb) Obrak garbitzea, eta eremuan dauden zabor eta objektu guztiak erretiratzea eta garraiatzea; eta obrak egiteko okupatutako lursaila eta honen ingurua jatorrizko egoerara itzultzea.

cc) Obrak entregatu arte, obra horiek babestea, kontserbatzea eta zaintzea.

dd) Laneko arriskuen prebentzioko, segurtasuneko eta osasuneko xedapenak betetzea.

ee) Aplikatzekoa den ingurumen-arloko araudia betetzea.

ff) Hala badagokio eta berariaz, **Karatularen 16. puntuan** adierazten diren betebeharrak betetzea.

Klausula honetan eta **Karatularen 16. puntuan** barne hartutako betebeharrek funtsezko kontratu betebeharren izaera izango dute SPKLaren 211.1.f) artikuluan jasotako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke, erakunde kontratugileak nahi badu.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO EGINBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzearen inguruan indarrean dagoen legeria eta SPKLan jasotako xedapenetan jasotakoa alde batera utzi gabe —esleipenaren publizitateari eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari dagokienez—, erakunde kontratugileak ezin izango du lizitatzaileek emandako informazioa zabaldu, baldin eta horiek hura konfidentzialtzat adierazi badute euren eskaintza aurkezteko garaian. Konfidentzialtasunak eragina du, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialetan, eskaintzen alderdi konfidentzialetan eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziotan —lizitazio-prozedura honetan nahiz ondorengo batzuetan—.

Kontratistak, bere aldetik, kontratua gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, agirian edo kontratuan izaera hori ematen bazaio edo berez konfidentzialtzat tratatu behar bada.

Konfidentzialtasun-betebehar horri **Karatularen 18. puntuan** adierazitako epean eutsi behar zaio.

24. ERANTZUKIZUNA ETA ASEGURUAK

Kontratistaren erantzukizuna da lanak ondo gauzatzea eta bere giza bitartekoak eta bitarteko materialak erabiliz lanak zaintzea eta, horretarako, obran bertan lanak zuzentzeaz arduratuko den pertsona bat egongo da. Bere kontura beharrezkoak diren seinaleak jarriko ditu, obrako sarrera adierazteko, lan-eremuetan trafikoa arautzeko eta leku arriskutsuak adierazteko, bai lan-eremuan bai bere muga eta inguruetan. Halaber, obraren izaera kontuan hartuta, pertsonen eta ondasunen segurtasuna ziurtatzeko neurriak hartuko ditu.

Kontratistaren betebeharra da kontratua gauzatzeko operazioen ondorioz hirugarrenen gainean eragin daitezkeen kalte eta galerengatik kalte-ordainak ordaintzea, Agiri honetan eskatutako epeak ez- betetzeari —partzialki edo erabat— garrantzi berezia emanez.

Aurrekoa alde batera utzita, lanek irauten duten eta bermea indarrean dagoen eperako, kontratistak, bere kontura, **Karatularen 19. puntuan** adierazitako aseguruak kontratatuko ditu, bertan adierazitako moduan eta baldintzetan (eta Agiri honen **VII eta VIII Eranskin**en arabera).

25. ZIGORRAK

a) Berandutzearen ondoriozko zigorrak.

Kontratista, berari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik, berandutu izanez gero agiri honetan eta/edo karatulan finkatutako epeetako edozein betetzean, erakunde kontratugileak aukera izango du, nahierara, kontratua suntsiarazteko — agiri honen 31. klausulako baldintzetan— edo hura gauzatzen jarraitzeko. Azken kasu horretan, erakunde kontratugilearen alde sortuko dira **Karatularen 20. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalte-ordain eta kalte-galera guztiez gainera.

Kontratista berandutuz gero, ez da aurretiko intimaziorik beharko erakunde kontratugilearen aldetik.

b) Kontratatutako prestazioak akatsez gauzatzearen edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzearen ondoriozko zigorrak.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak medio, kontratatutako prestazioak akatsez gauzatzen baditu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, erakunde kontratugileak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, agiri honetako 31. klausulan adierazitako baldintzen arabera, edo kontratuak gauzatzen jarraitzea erabaki dezake. Azken kasu horretan, erakunde kontratugilearen alde sortuko dira **Karatularen 20. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalte-ordain eta kalte-galera guztiez gainera.

Zigorrak ordaintzeko, enpresa kontratistari ordainketa osoa edo zatikoa egiteko ordaindu beharreko kopuruak kenduko zaizkio, edo bermetik kenduko zaizkio, aurreko kasuan adierazitakoa egitea ezinezkoa denean. Kasu horretan, dagokion erreklamazioa jarriko da eratutako bermea gainditzen duen kopuruagatik.

Nolanahi ere, kontratua suntsiarazi zein jarraitu erabaki, erakunde kontratugileak egokitzat jotzen duen denboran bere bitarteko propioak erabiliz edo hirugarrenen bitartez kontratuarekin jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galerak eta klausula honetan jasotako ondorioak kaltetu gabe.

26. KONTRATUA LAGATZEA

SPKLaren 98. artikuluan jasota dauden kontratistaren ondorengoa hautatzeko kasuak alde batera utzita, kontratua subjektiboki alda daiteke kontratu lagapenaren bidez soilik, klausula honetan ezarritako mugen barruan, eta aukera hori berariaz jasota baldin badago **Karatularen 21. puntuan**.

Lagapenak bete egin beharko ditu SPKLaren 214.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan ezarritako baldintzak; hots:

a) Kontratazio Organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena, SPKLaren 214.2.a) artikuluan adierazitako baldintzetan. Baimen-eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da. Epe hori igaro ondoren hura emantzat ulertu beharko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gutxienez gauzatuta izan behar du, SPKLaren 214.2.b) artikuluan adierazitako baldintzetan.

c) Lagapen-hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, eskatzekoa zaion kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa edo profesionala izan behar ditu; gainera, ez du kontratatzeko inolako debekurik izan behar, SPKLaren 214.2.c) artikuluan adierazitako baldintzetan.

d) Esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da, SPKLaren 214.2.d) artikuluan adierazitako baldintzetan.

Lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

27. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarren batzuekin hitzar dezake prestazioaren zati bat egitea, klausula honetan eta SPKLaren 215. artikuluan xedatutakoari lotuz. Salbuetsi egiten dira, hala badagokio, **Karatularen 22. puntuan** adierazitako prestazioak.

Kontratistak Kontratazio Organoari idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua esleitu ondoren eta, beranduen jota, hura gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa; eta adierazi beharko du prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duen, azpikontratistaren edo horren legezko ordezkarien nortasunaz eta harremanetan jartzeko datuez gainera. Halaber, behar adina justifikatu beharko du azpikontratistaren gaitasuna hura gauzatzeko, erreferentzia eginez dituen elementu teknikoei, giza bitartekoei eta horien esperientziari. Gainera, egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLaren 71. artikuluaren arabera.

Kontratista nagusiak Kontratazio Organoari idatziz jakinarazi beharko dio informazio horrek duen edozein aldaketa kontratu nagusia gauzatzean, baita azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazioa ere.

Baldin eta azpikontratistak azpikontratatuko den kontratu-atala egiteko sailkapen egokia badu, kontratistak, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu beharrik.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, erakunde kontratugilearekiko erantzukizun osoa, baldintza-agiriari, gauzatze-proiektuari eta kontratuaren baldintzei zorrotz lotuta gauzatzeko; barne direla SPKLaren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak.

Erakunde kontratugileak kontratistak egin dituen azpikontratuen berri izateak ez du eraginik izango kontratista nagusiak daukan erantzukizun esklusiboan.

Azpikontratistei eta hornitzaileei ordainduko zaie eta ordainketa horiek egiaztatuko dira SPKLaren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

28. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLaren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Horrez gain, Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du **karatulako 23. puntua**k aukera horretaz espresuki ohartarazten duenean, bertan aurreikusitako moduan eta baldintzetan.

Kontratuaren aldaketek ezingo dute berekin ekarri kontratuan jasota ez dauden unitateko prezio berriak ezartzea, ezta inongo erreklamazio ekonomikorik egiteko eskubidea ere, aldaketak obra unitateen ezabatze edo murrizketa ekarriko balu.

Karatularen 23. puntuan aurreikusitako aldaketak onartzeko prozedura sortuko da aldaketa aginduetatik abiatuz. Aldaketa agindu horiek ondoko edukia izan beharko dute:

- Igorpen data.
- Aldaketaren identifikazioa, egungo egoera azalduz eta aldatutako egoera azalduz.
- Banakako prezioak, neurketak eta epea.
- Aldaketa ahalbidetzen duten inguruabarrak

Aldaketa agindua kontratazio organoaren, edo ondorio horretarako ahalmendutako pertsona edo pertsonen, ardurapean utziko da, aztertu dezan, bertan jasotzen den aldaketa onartu beharko duelarik.

Aldaketa aginduak sinatua izan beharko du, adostasunaren adierazgarri, parte hartzen duten alderdi guztiengatik, hau da, kontratazio organoa edo ondorio horretarako ahalmendutako pertsonengatik, Obra Zuzendaritzarengatik eta bere aholkularitza teknikoarengatik, balego, eta kontratistarengatik.

Obra Zuzendaritzak ulertuko balu proiektuaren aldaketa beharrezkoa dela, aldaketa horren idazlana baimendu beharko du kontratazio organoak edo ondorio horretarako ahalmendutako pertsona edo pertsonek, kontratistari eta proiektuaren egileari audientzia emango zaie eta kontratazio organoak edo ondorio horretarako ahalmendutako pertsona edo pertsonek onartu egin beharko dute.

Dena den, ez dira aldaketatzat hartuko gehiegizko neurketak, horrela ulertuaz obra modu egokian egikaritzean benetan egikaritutako unitate kopuruan bakarrik emandako aldaketak proiektuan jasotako neurketekin alderatuz, beti ere aldaketa horiek orokorrean ez dakartenean gastuaren gehikuntza izatea kontratuaren hasierako prezioaren %10 baino handiagoa. Gehiegikeria hori obraren amaierako ziurtapenean jasoko da.

Kontratuaren aldaketak SPKLaren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

29. HARRERA ETA BERMEAREN EPEA

Kontratua guztiz beteko du kontratistak prestazioa osorik gauzatzen duenean, betiere kontratuan adierazitako terminoetan eta erakunde kontratugilearen adostasunarekin.

Karatularen 5. puntuan fase diferenteak aurreikusten badira, fase horiek partzialki eta modu independentean jasoko dira, Klausula honetan adierazitakoa betez. Horrela izanda, fase horietako bakoitza amaitzean, fase horiek jasotzeko ekintza bat egingo da. Era horretan, obrak egoera onean eta aurreikusitako baldintzekin bat etorriz badaude, erakunde kontratugileak hartutzat joko ditu. Obrak harrera egiteko baldintzak betetzen ez baditu, Aktan adieraziko da eta Zuzendaritza Fakultatiboak antzemandako akatsak adierazi eta beharrezko jarraibideak emango ditu, eta guztiak konpontzeko epea zehaztuko du. Epe hori amaitzean kontratistak akatsak zuzendu ez baditu, epe berri bat emango zaio edo kontratua ezeztatu egingo da.

Hori guztia 25. Klausulan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, eta erakunde kontratugileak dagokion zigorra ezarri ahal izango du; halaber, eragindako kalte-galerek zigor horien zenbatekoa gaindituko balute, gauzatzeko epean atzerapenak egon direlako kalte-galerengatik kalte-ordaina eskatu ahal izango du, fase horri dagokion obrak oniritzia jasotzen ez duen bitartean.

Bestalde, obrak erabat amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan eta, edozein kasutan, eraginpeko lursaila edo zona bere jatorrizko egoerara itzuli ondoren, obra horiek jasotzeko egintza burutuko da.

Jasotzeko egintza burutzean obrak egoera onean badaude eta aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte, erakunde kontratugileak jasotzat joko ditu. Hortaz, dagokion akta egingo da eta, une horretan, ondoren adierazitako berme-epea hasiko da.

Obrak jasotzeko baldintzak betetzen ez baditu, Aktan adieraziko da eta Zuzendaritza Fakultatiboak antzemandako akatsak adierazi eta beharrezko jarraibideak emango ditu eta guztiak konpontzeko epea zehaztuko du. Epe hori amaitzean kontratistak akatsak zuzendu ez baditu, epe berri bat emango zaio edo kontratua ezeztatu egingo da.

Bermealdia **Karatularen 24. puntuan** adierazten da. Epe horretan obrak zaintzeko lana eta bertan egindako lanetan ager daitezkeen bizioen edo akatsen konponketa kontratistaren kontura izango dira. Kontzeptu horrengatik kontratistak ez du kalte-ordainik edo aparteko ordainketarik jasotzeko eskubiderik izango.

Bermealdia amaitu aurreko hamabost egun naturaletan Zuzendaritza Fakultatiboak, ofizioz edo kontratistak eskatuta, obren egoerari buruzko txostena idatziko du. Txosten hori aldekoa bada, kontratista edozein erantzukizunetik salbuetsita geratuko da —ondorengo paragrafoan xedatutakoa izan ezik—, eta bermea itzuli edo kitatuko zaio. Txostena aldekoa ez bada, eta antzemandako akatsak obra

gauzatzean izandako gabeziek eta ez erabilerak eragindakoak badira, bermealdian Zuzendaritza Fakultatiboak jarraibide egokiak emango dizkio kontratistari eraikitakoa konpontzeko. Horretarako utziko den epean esleipendunaren ardurapean geratuko da obren kontserbazioa eta ez du kantitate gehigarririk jasotzeko eskubiderik edukiko bermealdia zabaltzeagatik.

Bermealdia amaitzean, kontratistak kontratua urratzeagatik eraikuntzako ezkutuko akatsen ondorioz obran kalte handiak eragiten badira, kontratistak erantzungo du obra-harrera egiten denetik hamabost urteko epean agertzen diren kalte eta galeren aurrean.

Epe hori amaitzean kalte edo galerarik antzematen ez bada, kontratistak ez du inolako erantzukizunik edukiko.

30. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratugileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta SPKLaren 208.2 artikuluan jasotako kalte-galerak ordaintzen badizkio kontratistari. Ondorio horietarako, artikulu hori berariaz aplikatzekotzat ezartzen da.

31. KONTRATUA IRAUNGITZEA

Kontratua iraungiko da berori betetzeagatik nahiz ondoren arautzen denaren arabera hura suntsiaraztea erabakitzeagatik.

Kontratua suntsiarazteko kausak izango dira, erakunde kontratugilearen borondatez:

a) Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo kaudimen gabezia deklaratzea.

b) Kontratistak epeak betetzean berandutzan erortzea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Funtsezko gainerako betebeharrak ez betetzea, baldin eta horiek halakotzat kalifikatu badira.

e) Prestazioa hasieran adostutako baldintzetan gauzatzeko ezintasuna, kontratua agiri honetan xedatutakoaren arabera aldatu ezin bada.

f) Kontratua gauzatzean, kontratistak soldatak ez ordaintzea kontratu hori gauzatzen parte hartzen ari diren langileei nahiz langile horientzat aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea, baita kontratua suntsiaraztean ere.

g) Kontratistak obra uztea. Hori hala egin duela ulertuko da zerbitzua emateari uzten dionean edo zerbitzua behar bezalako erregulartasunez ematen ez duenean —erakunde kontratugilearen iritziz—, edo kontratua epean gauzatzeko hitzartutako bitartekoekin ematen ez duenean.

h) Gizarte- eta ingurumen-mailako ez betetzeak, eta kontratistak edo enpresa azpikontratatuek laneko arriskuen prebentzioaren eta segurutasuneko eta osasuneko arloan indarrean dagoen araudia ez betetzea, ezta segurtasuneko eta osasuneko azterketan eta planean hitzartutakoa ere.

i) Oro har, kontratuko edozein betebehar ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan jasotakoaren arabera.

j) Kontratua suntsiarazteko kausa izango dira SPKLaren 245. artikuluan ezarritakoak —ondorio hauetarako, haiek berariaz aplikatzekoak deklaratzen dira—:

   1. Zuinketa egiaztatzean justifikatu gabeko atzerapena.

   2. Obren hasiera lau hilabetetik gora atzeratzea.

   3. Erakunde kontratugileak obrak zortzi hilabetetik gora etetea.

   4. Lanei uko egitea.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako arrazoirik badago, automatikoki suntsiaraziko da. Halakoetan, erakunde kontratugileak hartu duen erabakia fede emanez jakinarazi behar dio kontratistari.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak erakunde kontratugilearen esku utzi behar ditu kontratatu diren zerbitzuak eskaintzeko ordura arte landu dituen dokumentu guztiak, eta kontratua dela-eta sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa, erakunde kontratugileak erabilitako eta kontratistari emandako agiriekin batera. Aipatutako dokumentazio guztia erakunde kontratugilearena izango da aurrerantzean.

Halaber, kontratua suntsiaraztea erabakitzen den unetik, ordura arte egindako obra guztiak —metatutako materialak barne— erakunde kontratugilearen jabetzakoa izatera pasatuko dira. Horretarako, gauzatze-egoerari buruzko akta bat idatziko da, erakunde kontratugileak zein obra-zati eta material jasotzat onartzen dituen eta zein ez dituen jasotzat onartzen zehaztuta gera daitezen. Aktan obra-zatia ez onartzeko arrazoiak ere jasoko dira.

Horrez gain, dagokion kontratuaren likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian adierazten denaren arabera.

Klausula honetan jasotako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua suntsiaraztean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, erakunde kontratugileak hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Suntsiarazte kasu guztietan, benetan egin diren onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du kontratistak, hasiera batean.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen edozein arrazoirengatik suntsiarazten bada, erakunde kontratugilearen alde zorpetuko da **Karatularen 25. puntuan** jasotako zenbatekoa, kasuan-kasuan dagozkion kalte eta galeren ondoriozko edozein ordainez gain. Bi kantitateak behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeke dagoen preziotik kenduko dira eta soberakinaren erreklamazioa aurkeztuko da.

Hala eta guztiz ere, SPKLaren 246. artikuluaren 2., 3. eta 4. ataletako aplikazioa berariaz aitortzen da, hau da:

a) Zuinketaren egiaztatzea arrazoirik gabe atzeratuko balitz, kontratua suntsiaraztea eraginez, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, esleipenaren prezioaren % 2ren (BEZ kanpo) baliokidea izango den kalte-ordaina jasotzeko eskubidea baino ez du izango.

b) Obrak hasi aurretik hauei uko eginez gero, edo lau hilabetetik gorako epeagatik erakunde kontratugileak obrak egiten hastea atzeratzen badu, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, esleipen-prezioaren % 3ko (BEZ kanpo) kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du.

c) Obrak gauzatzen hasi ondoren hauei uko eginez gero, edo hasitako obrak zortzi hilabetetik gora eteten badira, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, egin gabe utzitako obren kontratuaren esleipen-prezioaren % 6 jasotzeko eskubidea izango du, industria-mozkin kontzeptu gisa (BEZ kanpo).

Azkenik, kontratua suntsiarazi ahal izango da erakunde kontratugilea eta kontratista ados jarriz gero. Halakoetan, aldeen eskubideak haiek baliozkotasunek adostutakora egokituko dira.

32. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua da eta bere prestaketari dagokienez, honakoek arautuko dute: Administrazio Klausula Berezien Agiri honek eta Gauzatze Proiektuak; eta, esleipenari dagokionez, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honek eta Gauzatze Proiektuak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, SPKLan horri buruz ezarritako arauek (esleipen-boterea duten eta herri administrazio ez diren sektore publikoko erakundeen artean arautze bateratura atxikita ez dauden kontratuetarako).

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honakoek arautuko dute kontratua: Administrazio Klausula Berezien Agiri honek, Gauzatze Proiektuak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauek. Nolanahi ere, kontratuari aplikatzekoak izango zaizkio SPKLaren 319. artikuluan ezarritako arauak "eraginei eta iraungitzeari" dagokienez.

Gainera, aplikatzekoak izango dira SPKLa eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena; agiri honetan testu arauemaile horietara jotzen duen guztian.

Nolanahi ere, kontratua Estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende egongo da datu pertsonalen babesari dagokionez.

33. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa izango da eskuduna kontratuak prestatzeari, esleitzeari eta aldatzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko; azken horien aurkaratzeak oinarri duenean SPKLaren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, ulertzen bada aldaketa horrek beste esleipen baten xede izan behar zuela.

Hala badagokio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, errekurtsoa aurkeztuko da Añarbeko Uren Mankomunitatearen presidentearen aurrean; baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera ere.

Jurisdikzio-ordena zibila izango da eskuduna kontratuaren ondorioei eta kontratua suntsiarazteari dagokionez, klausula honen lehen paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketetan izan ezik.

añarbe
urak aguas

ERANSKINAK

I. eranskina. Abal eredua.

[…] erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), IFK […] eta helbidea (jakinarazpen eta errekerimenduetarako) […(e)an] dituenak, eta haren izenean […(e)k] (ahalordedunen izen-abizenak), agiri honen behealdean adierazitako ahalorde askiestetik ondorioztatzen denez egintza honetan behartzeko behar beste ahalorde duenak […] honako honi ematen dio ABALA: […] (abalatuaren izena eta abizenak edo helbide soziala), […] IFK zk., […](r)en aurrean, […] euroko zenbatekoaz, Illunbe-Miramon tartean, I Adarreko jarioa konpontzeko obren kontratuaren ondoriozko betebeharrengatik erantzuteko.

Erakunde abal emaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2. artikuluan adierazitako eskakizunak betetzen dituela. Abala notario aurrean sinatzen da obligaziodun nagusiarekin solidarioki, banaketa- eta esklusio-onurari espresuki uko eginda, eta Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak SAren lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak SAk berori kitatzea edo itzultzea baimentzen duen arte.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n

[Sinadura]

II. eranskina. Adierazpenen notario aktaren eredua, eskatutako kaudimena egiaztatzeko eta/edo eskatutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa betetzeko, lizitatzaileak asmoa duenean beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko.

[OHARRA: Lizitatzaileak eskaintza onena aurkeztu duen kasuan, eta lizitatzaileak, eskatutako kaudimena eta/edo eskatutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa frogatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu nahi duen kasuan baino ez da aurkeztu behar. ***Hirugarren erakundeak bete behar du]***

[…] jaunak/andreak, NAN […] duenak, […] enpresaren (IFK:.....) legezko ordezkari gisa, adierazi du ezagutzen dituela […] (enpresa lizitatzailearen izena) lizitatzaileak lehiatuko duen Illunbe-Miramon tartean, I Adarreko jarioa konpontzeko obrak kontratatzeko lizitazioaren baldintzak, eta esleipendun suertatuz gero, kontratua gauzatzeko behar diren bitartekoak lizitatzaile horren esku jartzeko borondate ezeztaezina adierazten duela, Kode Zibileko 1257.2. artikuluan xedatutakoa espresuki onartuta. Hori aldatu edo ordezkatzea […]ak baimendu beharko du espresuki.

Idatzi hori aurkeztuz gero, […]k konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta lizitatzaile hori esleipendun suertatzen bada.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n

[Sinadura]

III. eranskina. Kontrataziorako Europako Dokumentu Bakarra (KEDB).

Kontratatzailearen profilean KEDB eredua eskuratu ahal izango da, bai pdf formatuan bai xml artxiboan.

IV. eranskina. Giza bitartekoak eta/edo bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NAN zenbakia dituenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] NAN edo IFZ dituen […]ren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, Illunbe-Miramon tartean, I Adarreko jarioa konpontzeko obren lizitazioa ezagututa, honen bidez ondokoa

AITORTU DU:

Kontratuaren esleipendun suertatzen bada, kontratu hori gauzatzeko kontratazio hori arautzen duen Karatulako 10. puntuan eskatutako gutxieneko giza bitartekoak eta/edo bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa hartzen duela.

Eta hala jasota gera dadin, dagozkion ondorioetarako, giza bitartekoak atxikitzeko konpromiso hau aurkezten du, […](e)an, […]ko […]aren […](e)an.

[Sinadura]

V. eranskina. Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NAN zenbakia dituenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] NAN edo IFZ dituen […]ren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, Illunbe-Miramon tartean, I Adarreko jarioa konpontzeko obrak kontratatzeko lizitazioa ezagututa, prozedura ireki bidez izapidetuko dena, honen bidez ondokoa

AITORTU DU

1. Konpromisoa hartzen duela Illunbe-Miramon tartean, I Adarreko jarioa konpontzeko obren kontratua gauzatzeko, ondorengo baldintzen arabera:

   - Eskainitako prezioa: …….. euro (BEZ barne), honela xehatuta:

     - …….. euro (prezioa BEZ kanpo).
     - …….. euro (BEZ).

   - Prezio unitarioen zerrenda, gauzatze materialeko kontzeptu gisa, obran erabilitako materialen oinarrizko prezioak, obran erabili beharreko makineriaren oinarrizko prezioak eta obrari atxikitako langileen lanbide-kategoriak barne.

   - Zerbitzua emango duen profesional-taldean emakumeak atxikitzeko konpromisoa (emakumeen kontratazioa sustatzea): [...] emakume.

2. Ezagutzen duela kontratua zuzentzen duen kontratuko dokumentazioa, eta berori osorik bere gain hartu eta onartutzat hartzen duela berariaz.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n

[Sinadura]

VI. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NAN zenbakia dituenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] NAN edo IFZ dituen […]ren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, Illunbe-Miramon tartean, I Adarreko jarioa konpontzeko obrak kontratatzeko lizitazioa ezagututa, prozedura ireki bidez izapidetuko dena, honen bidez ondokoa

AITORTU DU

Lehenik.- Eskaintza hau aurkezteko datan, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetan ez dela erori. Hortaz, 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Kontseiluaren eta Europako Parlamentuaren Zuzentarauak Espainiako antolamendu juridikora iraultzen dituzte.

Bigarren.- Berariaz onartzen duela erakunde kontratugileak lizitazio-prozesuaren, esleipenaren eta exekuzio osoaren ondorioz (esleipendun suertatuz gero) jasotako datu guztiei gardentasun instituzionala ematea.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n

[Sinadura]

VII. eranskina. Aseguru entitatearen ziurtapena

..... jaunak/andreak, …… aseguru-entitatearen izenean jardunez, …….. eguneko ahalordetze-eskrituraren arabera, honakoa

ZIURTATU DU:

Lehenengoa: Ziurtagiri honen bukaeran identifikatutakoaren arabera, aseguru-polizak, prozedura ireki bidez, Illunbe-Miramon tartean, I Adarreko jarioa konpontzeko obren kontratazioa arautzen duen administrazio baldintza berezien agiriko IX. eranskinean finkatutako baldintzak betetzen dituela.

Bigarrena: Ordezkatzen duen aseguru-entitateak kontratatutako poliza ez aldatzeko eta ez baliogabetzeko konpromisoa hartzen duela, baldin eta aurretik eta modu sinesgarrian Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak SAri jakinarazten ez bazaio.

Dagokion ondorioetarako ziurtagiri hau luzatzen da, ……..(e)an, …….ko ……..aren …….(e)an.

Sin.: ……

Konpainia	Aseguratua	Indarraldia	Aseguru-adarra	Poliza zk.
……	……	……	Erantzukizun zibila	……

VIII. eranskina. Aseguruaren baldintzak

Aseguratua:

Polizan, enpresa esleipendunaz gain, aseguratu izaera izango dute Añarbe ibaiko urtegiko uren mankomunitate munizipalak (AUMA) eta Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak SAk (AUSA), obrekin lotutako teknikariak barne. Halaber, AUMA eta AUSA, eta euren ondasunak, elkarren artean kalte-ordaina jasoko duten hirugarren gisa hartuko dira.

Enpresa esleipendunak, kontratatuko duen poliza berrian edo jada kontratatuta izango duen erantzukizun zibileko polizaren eranskinean, AUMA eta AUSA sartu beharko ditu “erantsitako aseguratu” gisa, kalte-ordaina jasoko duten hirugarrenen izaera galdu gabe.

Aseguru-hartzailea:

Kontratista.

Obren deskribapena:

Honako obra hauek gauzatzea: Illunbe-Miramon tartean, I Adarreko jarioa konpontzeko obrak.

Arriskuaren egoera:

Proiektuan hartutako konponbidea Donostiako Udalaren lursail publikoetan dago.

Obren bolumena:

Lizitazioko gehieneko aurrekontua 105.311,93 euro da (BEZ barne).

Obren iraupena:

Gauzatzeko guztizko gehieneko epea hilabete eta erdikoa da, zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen denetik kontatzen hasita.

Frankizia:

Hartzailearen kontura soilik.

Zehaztapenak:

Polizaren ondorioetarako, aseguratuak kalte-ordainak jaso ditzaketen hirugarren —baita elkarren arteko ere— gisa hartuko dira.

Bermeak	Mugak	
	Ehunekoa (%) edo bestelakoak	Zenbatekoa (€)
Obretan, lanetan eta instalazioetan kalteak, baita obran bertan metatutako materialetan ere	---	
Naturaren arriskuak	---	
Lapurreta eta espoliazioa	---	
Mantentzealdia	---	
Suteak itzaltzeko gastuak	---	
Arrisku politiko-sozialak, grebak	---	
Terrorismoa	---	
Eraikuntzako ekipoak eta makineria	---	
Eraisteak	---	
Luiziak	---	
Aurretik zeudenak	---	
Gainkostuak	---	
Erantzukizun zibil orokorra	Barne hartuta	300.000
Materialen eta pertsonalaren erantzukizun zibil gurutzatua	Barne hartuta	
Erantzukizun zibil patronala azpimuga biktima	Barne hartuta	150.000
Aseguratuaren teknikarien erantzukizun zibil profesionala	Barne hartuta	
Lanen ondoko erantzukizun zibila	Barne hartuta	
Bazeuden ondasunen gaineko erantzukizun zibila	Barne hartuta	
Ezusteko kutsadura	Barne hartuta	
Kalteak kableetan eta hodietan	Barne hartuta	
Fidantzak eta defentsa	Barne hartuta	

Kontratistaren erantzukizuna izango da, obrak hasi aurretik, kable-lineen eta hodien kokapen zehatza ezagutzeko informazioa (planonak, eskemak, txostenak, etab.), Herri Administraziotik, oro har, eta enpresa hornitzaileetatik (elektrizitate, gas, telefonia eta abarreko enpresak) jasotzea, ezusteko, bat-bateko eta ustekabeko kalteak ekiditeko.

Aplikatzekoa den legeriaren arabera, Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak SAk exiji daitezkeen beste poliza batzuk kontratatzeko eska dezake.